

EUSKAL AEKO ZERBITZUEN KOIUNTURAKO INDIZEA (ZKI) 2012ko 1. hiruhilekoa


Euskal AEko zerbitzuen sektorearen salmenta-indizea %3 jaitsi zen 2012ko lehen hiruhilekoan

Merkataritzaren salmenta-indizea %1,8 jaitsi zen eta beste zerbitzuena %4,7

Euskal AEko zerbitzuen sektorea: Eustatek emandako datuen arabera, 2012ko lehen hiruhilekoan, Euskal AEko zerbitzuen sektoreko salmenta-indizea %3 murriztu zen, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %2,2 nominala murriztu da, urtarotegirak kenduta.

1. grafikoa. Euska AEko zerbitzuen gaineko koiuntura-indizea. Urte arteko aldakuntza-tasak. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko zerbitzuen gaineko koiuntura-indizea (ZGK)

Euskal AEko merkataritzaren salmenta-indizea %1,8 nominala jaitsi da 2012ko lehen hiruhilekoan; indizearen parte diren beste zerbitzueta %4,7 jaitsi da 2011ko aldi beraren aldean.

Merkataritzaren barruan deigarria da Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketaren jaitsiera nominala, %7,7. Handizkako eta Txikizkako merkataritzetan %1,3ko jaitsierak.

Beste zerbitzuen sektore guztietan, tamaina ezberdinetako jaitsierak. Informazioa eta komunikazioetan, %8. Garraio eta bilketan, %5,3. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan, %4,9. Jarduera administratibo eta laguntza-zerbitzueta, %4,4. Ostalaritzan, %1,3.

Salmenta-indizearen jaitsierarik handiena, Bizkaian, %3,3. Gipuzkoan %2,5 eta Araban %2,4.

Termino errealetan, prezioen eragina kenduta, zerbitzuen sektorearen salmentak %4,8 jaitsi ziren lehen hiruhilekoan

2011ko hiruhileko beraren aldean eta prezio finkoetan, Merkataritzaren salmenta-indizea %4 jaitsi da, eta beste zerbitzuena %6,5.

Merkataritzan urte artekoa negatiboa izan da sektore guztietan: Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa %11,2 jaitsi da. Handizkako merkataritzaren salmenta-indizea %3,8 eta Txikizkakoarena %2,8.

1. taula. Euskal AEko zerbitzuen gainerako koiuntura-indizea. Urte arteko eta hiruhileko arteko aldakuntza-tasa. 1. hiruhilekoa. 2012(p)

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	-3,0	-2,2	-4,8	-1,4
Araba/Álava	-2,4	-1,9	-4,4	-1,9
Bizkaia	-3,3	-2,3	-5,0	-1,0
Gipuzkoa	-2,5	-2,2	-4,7	-2,0
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Merkataritza	-1,8	-0,3	-4,0	-1,4
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	-7,7	-0,8	-11,2	-1,4
Handizkako merkataritza	-1,3	0,8	-3,8	-0,4
Txikizkako merkataritza	-1,3	0,3	-2,8	0,2
Bestelako zerbitzuak	-4,7	-2,6	-6,5	-2,9
Garraioa eta biltegiratzea	-5,3	-3,5	-7,7	-3,1
Ostalaritza	-1,3	-0,3	-2,3	-1,1
Informazioa eta komunikazioak	-8,0	-2,6	-7,6	-0,7
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	-4,9	-4,1	-6,7	-4,2
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	-4,4	0,9	-7,5	-0,7
ENPLEGU INDIZEA				
Euskal AE	-3,4	-0,7		

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko zerbitzuen gainerako koiuntura-indizea (ZGK)

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak.

Beste zerbitzuetan, euro finkoetan: Garraio eta bilketaren salmenta-indizea %7,7 jaitsi da; Informazio eta komunikazioena %7,6; Jarduera administratibo eta laguntza-zerbitzuena %7,5; Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoena %6,7, eta Ostalaritzarena %2,3.

Euskal AEko zerbitzuen sektoreko landunen indizea: 2011ko laugarren hiruhilekoaren aldean, Euskal AEko zerbitzuen sektorean landunen kopurua %0,7 murriztu da 2012ko lehen hiruhilekoan.

Ohar metodologikoa

Eustatek aurreneko aldiz argitaratzen du Zerbitzuen Koiunturako Indizea (ZKI). Euskal AEko eta haren lurraldeetako Zerbitzuen sektoreko salmenten eta langile okupatuen bilakaeraren koiunturako indize bat lortu nahi da. Beraz, zerbitzuen sektore osoaren hiruhilekoko ikuspegi globala ematen du.

Indizeen oinarri-urtea 2010 da; urte horretako aurreneko hiruhilekorako lortu dira indizeak lehenengo aldiz.

Zerbitzuen Koiunturako Indizea ondorengo azpi-sektoreek osatzen dute: Merkataritza; Garraio eta Bilketa; Ostalaritza; Informazioa eta Komunikazioak; Jarduera Profesional, Zientifiko eta Teknikoak; Jarduera Administrazioa eta Laguntza-zerbitzuak (NACE 2. berrik.; JESN-2009)

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01